

# *Probintziako Egitasmoa*

*2009-10 Urteko plana*

1. Urteko plana
2. Jesuita-komunitateen parte-hartzea
3. Jesuita-erakundeen parte-hartzea
4. Probintziako subjektu apostolikoaren VI. topaketa

*Nagusi eta zuzendarien batzarra*

*Loiolan, 2009ko urriaren 2an*

2008-09 urtean landutako Probintzia Proiektua garatzeko, hiru lerro estrategiko eta proiektu sail bat definitu dira, ondorengo lau urteetan zehar lantzen joango garenak. Lau urteko plan honek martxan zeuden Probintzia mailako proiektuak eta dinamikak jasotzen ditu, eta beste zenbait berri proposatzen. Proiektuak asmo handiak ditu eta, beraz, lorpenak eta egindako jarduerak lehenesten, ebaluatzen joatearen aldekoak gara, gure lan-proposamenak eta helburuak urtero doitzen joateko.

Gure plangintza-prozesuarekin batera, bateratze prozesu batean sartuta gaude Lagundiaren Espainiako Probintziak. Hortik sortuko dira, partekatutako proiektu baten ikusmugarantz joateko, aztertuko ditugun lehentasunak, proposamenak, helburuak, etab. Gure proiektua, proiektu bakarrean joango da batzen eta gure espezifikotasun geografiko eta kulturala gehituz berari.

## URTEKO PLANA EGITEKO IRIZPIDEAK

Urte hau planifikatzeko, Probintziako lerro hauetako bakoitzean izan ditugun irizpideak, hauek dira:

1. **Martxan dauden proiektuak mantendu.** Gure ebaluazioan, aurreko proiektuaren zenbait lorpen nabarmendu genituen, mantentzea komeni denak (prestakuntza plana, komunitate mailako proiektuak edo komunitate apostoliken dinamika, adibidez). Horietako zenbaitetan, orientabideak eta jarraibideak jaso dira, sakontzen joateko, 2009ko Proiektua ebaluatu eta berriro definitzearen ondorioz.
2. **Bete gabeko gaiak berriro hartu.** Aurreko epealdiko ebaluazioan aitortzen genituen baita ere, hobekuntza marjina garbia zuten alderdiak: espiritualtasuna obren zehar-lerro gisa, elizatasuna, Probintziaren bokazio-plana edo ezaugarrien ebaluazioa. Aurreko urtean, proiektuaren alderdi hauek berriro hartzeko eta horietan sakontzeko proposamenak landu dira.  
2008-09 urtean, Probintzia mailako ekimenen proposamenen inguruan lan egin genuen, non komunitateek eta obrek batera lan egin genezakeen eta gure proiektua hobeto ikusarazi horrela. Horietako lau, subjektu apostolikoaren topaketan landu ziren, eta baditugu ideiak horren zehaztapenean aurrera egiteko.  
2010eko subjektu apostolikoaren topaketako dinamikek, obretan aldeztu aurretik prestatuz, elizatasunera eta obren konfesionaltasunera hurbiltzen lagunduko digute, eta denbora hartuko dugu, gure Elizaren baterako misioa agerian utz dezakeen sektorearteko proiektuetan batera lan egiteko.
3. **Lagundiaren proposamenak integratu.** Bateratze prozesuaren dinamika eta Erromako Kuriatik datozen eskariak, gure komunitate, erakunde, sektore edo Probintziako gure proiektuetako parte dira. Horregatik gorde ditugu tarteak gure agendan gai hauek sartzeko.
4. **Lehenetsi.** Proiektu guztiei ezin ditugu aldi berean heldu. Proiektu berriak martxan jartzea neketsua eta korapilatsua gerta daiteke, batez ere, sektorearteko lanean sakondu nahi badugu.

# HELBURUAK ETA EKINTZAK

Laburbilduz, aurten, lerro estrategiko bakoitzaren barruan planteatutako helburuak hauek dira:

## **1. lerro estrategikoa: Misiorako pertsonak**

Lerro estrategiko honen bidez, Probintziako subjektu apostolikoa osatzen eta sendotzen lagunduko duten prestakuntza prozesuetan pertsoneri eta taldeei lagundu nahi diegu. Jesuita komunitateen bizitza ere berritu nahi dugu, beren karismarekin leial izanez.

- 1.H. Misioan inplikaturako pertsoneri laguntza eman:
  - *Prestakuntza planaren dinamikarekin jarraitu.* Aurten 6. taldea abiatzen da, 4 talde daude prozesuan.
  - *Pertsoneri erakundeetan laguntza eman.* Jarraituko dugu sakontzen, lagun egite hau burutzeko eraz, 2009ko subjektu apostolikoaren topaketan egindako ekarpenak aintzat hartuz.
- 2.H. Jesuita-komunitateen bizitza eta misioa biziberritu:
  - *Komunitate proiektuen* eguneratzea eta jarraipena.
  - *Prestakuntza iraunkorraren dinamikarekin* jarraitu. Hiru lan-egunetarako deiak egingo dira prestakuntzarako, hiruhileko bakoitzeko bana, komunitateei proposatuko zaizkien gaien inguruko gogoeta bultzatzeko. Gaiak: *Elizarekin sentitu 35KO-aren ondoren, Apaizgintza eta Espiritualtasuna obretan.*

Probintzialak dei egingo die nagusiei helburu hau garatzen joateko.

## **2. lerro estrategikoa: Misiorako erakundeak**

Pertsonak osatzen dute gure misioaren funtsezko ardatza. Alabaina, Lagundiak bere inguruarekin duen konpromisoaren zati handia, erakunde apostolikoetan, eta hauen bidez, egiten da, fruitu egonkorrago eta irismen handiagokoa bilatuz. Lerro estrategiko honen bidez, Lagundiaren misioko partaidetzan egindako zerbitzua berritzen eta sakontzen duten dinamikak sustatu nahi ditugu, Lagundiaren erakundeetan.

- 3.H. Obren ignaziotar izaera sendotu:
  - *Komunitate apostolikoak indartu.* Erakunde guztietan sortu dira komunitateak. Oraingo ahalegina, gune hau indartzekoa izango da, komunitateen lidergoak misioaren grapenean lagun dezan, herriko eta probintziako erakunde mailan.
  - Ekintzak proposatu *obretan espiritualtasunaren* inguruan lan egiteko. Badakigu gai korapilatsua dela. Aurreko urtean Espiritualtasun Batzordea, dokumentu bat lantzen aritu izan da, prestakuntza iraunkorra jardunaldi batean aurkezteko. Jarduera plan bat definitzeko lehen urratsa izango da, datorren ikasturtetik.
- 4.H. Obren ebaluazio apostolikoa sistematizatu:
  - *Ezaugarrien ebaluazio* berria, 2010ean. Ekintzen jarraipena egin da, obra gehienetan. Ikasturtean zehar batzorde batek gainbegiraturako ditu erreminta eta metodologia, zuzendariei eta nagusiei ekainean aurkezteko. Helburua, 2010 urtearen amaiera baino lehen, ezaugarrien 2. ebaluazioa egitea da.
- 5.H. Gure erakundeen zenbait neurri esanguratsu indartu 35KO-aren argira:
  - *Prestakuntza iraunkorra.* Prestakuntza jardunaldietako hirutik bi, bateratuak izango dira jesuitentzat eta laikoentzat. Gaiak: *Elizarekin sentitu 35KO-aren ondoren eta Espiritualtasuna obretan.*

### **3. lerro estrategikoa: Sektoreartekotasuna**

Lerro estrategiko honekin, eratu eta ikusarazi nahi dugu, pertsonen, komunitateen eta obren gorputza, bere aniztasunak aberasturik eta ignaziotar espiritualtasunean oinarriturik, justizia eta senidetasuna bizi eta sustatzen dituen eta Jesukristo, gaur egun, esanguratsu egin nahirik ari dena. Erakunde eta antolaketa ezberdinetatik egiten dugu hori, bakoitzak bere ekarpena eginez, presentzia ezberdinetatik lortzen diren sinergietatik, geu aberastuko garen eta gure lanaren fruitua handiagoa izango den kontzientziarekin.

- 6.H. Probintzian egitura apostolikoa eta lidergoarena egokitu.
  - *Misioaren jarraipena* sistematizatu Ministerioen Batzordean. Obra eta sektoreen informazio-proposamena adostu da, Batzordeari, Probintziako martxa apostolikoaren ardura hartzen laguntzeko. Era honetan, lidergo apostolikoan, hobeki lagundu ahal izango dio Probintzialari.
  - *Probintzia mailako egiturak* egokitu. Probintzia mailako dinamika berriek eta Lagundian, Elizan eta gizartean era integratuagoan lan egiteko beharrak, auzitan jartzen dituzte gure egiturak. Badakigu ikasturte honetan ezagutuko ditugula Probintzia bakarrari buruzko proposamenak. Kontraste bidez joango da zehazten gure gogoeta, eta ondorengo urteetan bat egiten joan beharko dugun antolakuntza ikusmuga hau geure eginez.
  - Tokiko nagusiaren irudia indartu. Azken urteetan, proiektuaren garapenean, Probintzia mailako ahalegin handiagoa egin dugu, erakundeekiko lanean. Aurreko ikasturtean, bertan, dei egin zien Probintzialak nagusiei, komunitate bizitza dinamizatzen eta proiektuaren gaiak bereganatzen lagunduko zien lan egiteko modu berriak baloratzeko. Ikasturte honetan bi batzar egitea proposatzen da, funtsean, 2. eta 7. helburuak garatzeko.
- 7.H. Sektorearteko proiektu apostolikoak garatu:
  - *Bokazio-planaren* garapena. Proiektuan bete gabeko helburua da, bokazio-plana lantzea eta ekimenak eta proposamenak definitzen joatea, garatu ahal izateko. Ikasturte honetan berriro helduko diogu gai honi eta helmuga zein izan daitekeen joango gara ikusten.
  - *Santutegien proiektua*. Batzordeak zenbait hilabete daramatza gai honetan lanean. Helburua, misioa, ikuspegia, aukerak eta lerro estrategikoak, ekainean definituta izatea izango litzateke, 4 urterako, eta baita lau urteko plan bat ere, ezartzen joateko.
  - *Probintzia mailako sarea immigrazioaren inguruan*. Lanari hasiera eman obra eta komunitateen inplikazioarekin sarea osatzeko. Probintzia mailako lana, ikasturtean zehar joango da definitzen, egingarri diren tokiko zenbait ekimen bereganatuz. Sektorearteko batzordea osatuko da proiektuaren lidergoa eraman dezan.
  - *Jesusen esperientziatik bizitzeko prestakuntza (gazte helduentzat)*. Ekimen hau konplexuago denez, eta behar beste definitu gabe, pastoraltza batzorde batean landuko da, Kuriako norbaitek lagundurik. Ekainean lan proposamen bat aurkezteko eskatuko zaie, proiektuaren hasiera 2010-11 ikasturtean abia dadin.
- 8.H. Probintziaren komunikazio-plana garatu:
  - *Barne komunikaziorako* bitartekoak eguneratu. Komunikazio-batzordeak landutako proposamenak jarraituz, aldaketak sartu dira albisteetan. Batzordeak 2008-09 ikasturtean landutako proposamen berriak sartuko dira.

## JESUITA-KOMUNITATEENTZAKO EKINTZAK

35. Kongregazio Orokorreko dokumentuen lanaren jarraipen gisa, ikasturte honetan, gure bizitzaren eta misioaren eliz neurrira hurbiltzeko asmoa dugu (1. dekretua *Bulkada eta suhar berrituz*).

Proiektuaren aro berri honetan, gure komunitateko proiektu apostolikoetan eta gure prestakuntza iraunkorrean sakonduko dugu. Obrekin batera, zehaztapenari helduko diogu, 2008-09 ikasturteko prozesuan, probintzia mailan eragindako ekimenen proiektuetan. Urte honetan *Migrazioen sarearen* ekimenari helduko diogu sakonkiago. Gainerakoa, hurrengo urteetan lana hasteko eran antolatuko da.

Azkenik, Probintzia Bakarraren Proiektuaren definizio-prozesuak lanerako ildoak emango dizkigu ikasturtean zehar, probintzia, sektore, erakunde eta komunitate mailako gure lehentasunetan gizarteratu eta barneratu beharko ditugunak.

Hau dena aintzat hartuz, 2009-2010 ikasturterako egiten den lan proposamena honakoa da:

### **09-10 / LEHENENGO HIRUHILEKOA**

**Prestakuntza iraunkorra.** Gaia: *Elizarekin sentitu 35KO-aren ondoren* (D. Molina SJ) (2009.10.02). Hitzaldi honekin, bertara gonbidatuak daude gure obretako laiko guztiak ere, elizatasunaren eta konfesionaltasunaren gaira hurbiltzen hasi nahi dugu.

**Komunitate-batzarrak.** Komunitate mailako erretiro edo topaketa bat *Eliza bizi* gaiarekin. (35KO 1. dekretua), Elizatasun Batzordeak 2008-09 ikasturtean landutako proposamenaren haritik.

**Proiektua gizarteratzea.** Lehen hiruhileko honetan, Probintzia Proiektuaren eta urteko planaren lan-lerroak gizarteratu. Aurreikusia dago halaber, azaroan, Probintzia bakarraren Misioa / Ikuspegia / Aukerak adierazten dituen zirriborroa bidaltzea. Bilera bat edo bitan, bi dokumentu horien gaineko gogoeta egingo dugu ekarpenak egiteko.

### **09-10 / BIGARREN HIRUHILEKOA**

**Prestakuntza iraunkorra.** 1. gaia: *Apaizgintza* (2010ko urtarrila-otsaila). Apaiz-urtea delako, eta komunitateetan gai honen inguruan egindako gogoeta indartzeko.

Gaia: *Ignaziotar espiritualtasuna obretan* (Espiritualtasun Batzordea) (2010/03/12). Espiritualtasun Batzordeak, gai honen inguruan landutako dokumentua aurkeztuko du, abiapuntu gisa, gai hau gure erakundeetan lantzen jarraitzeko.

**Komunitate-batzarra.** Gaia: *Apaizgintza*. Aita Jeneralaren gonbita jasoko dugu, gogoeta egiteko, nola ulertzen dugun Lagundia apaizen gorputz gisa, eta jesuitok, anaiak edo apaizak, nola bizi dugun Lagundia gorputzaren apaiz izaera. Ondorioak Sozioari bidaliko zaizkio otsailaren 10a baino lehen, erantzunak taularatu eta Erromara bidaltzeko.

Jesuitak gonbidatuak daude baita ere, Probintziako Subjektu Apostolikoa obretan topaketaren prestaketarako 2. batzarrean parte hartzeko. Bere gaia *Migrazioen Probintziako sarea* izango da. Batzar hau komunitatean egitea proposatzen da, baina etxeko Nagusiak eta etxe barruko kontsultak komenigarri ikusten badute bakarrik.

### **09-10 / HIRUGARREN HIRUHILEKOA**

**IV. Subjektu Apostolikoa.** SAREN urteko topaketa (2010.04.16/17), gogoeta otoizlaria izango da, *Migrazio sarea* Probintzian eta herri mailan nola zehazten den, eta gure misio zehatzak duen eliz neurriaren inguruan.

**Proiektua gizarteratzea.** Hiruhilekoan zehar eskura izango ditugu Probintzia Bakarraren behin betiko aldaeraren Misioa / Ikuspegia eta Aukerak. Dokumentu honen argira, aztertuko ditugu gure misioa, ikuspegia eta aukerak, A. Probintzialak onartu aurretik ekarpenak egiteko. Bi dokumentuak gizarteratuko dira komunitate guztietan.

## JESUITA-ERAKUNDEENTZAKO EKINTZAK

35. Kongregazio Orokorreko dokumentuen lanaren jarraipen gisa, ikasturte honetan, gure bizitzaren eta misioaren eliz neurri hurbiltzeko asmoa dugu (1. dekretua *Bulkada eta suhar berrituz*).

Bestalde, Proiektuaren aro berri honetan, 2009-10 ikasturteko prozesuan eragindako Probintzia mailako ekimenak, proiektuetan zehazten hasiko gara berriro. Eskuardean ditugun baliabideak mugatuak direnez, urte honetan *Migrazioen sarearen* ekimenari helduko diogu sakonkiago. Gainerakoa, hurrengo urteetan lana hasteko eran antolatuko da.

Azkenik Probintzia Bakarraren Proiektuaren definizio-prozesuak lanerako ildoak emango dizkigu ikasturtean zehar, probintzia, sektore, erakunde eta komunitate mailako gure lehentasunetan gizarteratu eta txertatu beharko ditugunak.

Hau dena aintzat hartuz, egiten den lan proposamena honakoa da:

### **09-10 / LEHENENGO HIRUHILEKOA**

**Prestakuntza iraunkorra.** Gaia: *Elizarekin sentitu 35KO-aren ondoren* (D. Molina SJ) (2009.10.02). Hitzaldi honekin, elizatasunaren eta konfesionaltasunaren gaira hurbiltzen hasi nahi dugu.

**Komunitate apostolikoaren batzarra.** Otoitz dinamika batean, gure obren eta Probintziaren eliz neurri hurbilduko gara. Irakurtzeko, erreferentzia gisa, hartutako testu baten bidez, Jainkoaren Erreinua eraikitzen ari den Elizako parte izateko gure kontzientzian sakontzeko bideak bilatuko ditugu.

**Proiektua gizarteratzea.** Lehen hiruhileko honetan, beharrezkoa izango da Probintzia Proiektuaren eta urteko planaren lan-lerroak gizarteratzea.

### **09-10 / BIGARREN HIRUHILEKOA**

**Prestakuntza iraunkorra.** Gaia: *Ignaziotar espiritualtasuna obretan* (Espiritualtasun Batzordea) (2010/03/12). Espiritualtasun Batzordeak, gai honen inguruan landutako dokumentua aurkeztuko du, abiapuntu gisa, gai hau gure erakundeetan lantzen jarraitzeko.

**Komunitate apostolikoaren batzarra.** Batzar hau *Migrazioen Probintziako sarearen* proiektuan kokatuko da. Probintzia mailako batzorde batek landuko du lehen hiruhilekoan, Probintziako topaketa prestatzeko lan-dinamika eman diezagun.

### **09-10 / HIRUGARREN HIRUHILEKOA**

**IV. Subjektu Apostolikoa.** SAren urteko topaketa (2010.04.16/17), gogoeta otoizlaria izango da, *Migrazio sarea* Probintzian eta herri mailan nola zehazten den, eta gure misio zehatzak duen eliz neurriaren inguruan.

**Proiektua gizarteratzea.** Hiruhilekoan zehar eskura izango ditugu Probintzia Bakarraren behin betiko aldaeraren Misioa / Ikuspegia eta Aukerak. Dokumentu honen argira, eta gure proiektua, izango den Probintziaren aukeren lerroan jartzeko, gure misioa, ikuspegia eta aukerak aztertuko ditugu, A. Probintzialak onartu aurretik ekarpenak egiteko. Zuzendariak bi dokumentuak landuko dituzte eta proposamen bat egingo da obretan gizarteratzeko.

## SUBJEKTU APOSTOLIKOAREN VI. TOPAKETA

### **Gure eliz misioa**

#### *Loiolako Probintziaren Proiektua 35KO-aren argira*

Lagundiaren azken Kongregazio Orokorra erreferentzia izan da 2009ko uztailean amaitu genuen Proiektua berriro definitzeko prozesuan. Kongregazioko zenbait dokumentu gizarteratu dira, eta horien gaineko gogoeta hasi dugu, gure bizitzan eta gure lanean txertatzeko horren espiritua. 2008-09 ikasturtean, jesuita komunitateek landu zuten 2. dekretua *Beste suak pizten dituen sua*, nortasunari buruz, eta komunitate eta obra guztiok landu genuen 3. dekretua, *Gure misioaren erronkak, gaur*, Probintzia proiektua berriro definitzeko prozesuaren barruan.

2009-10 ikasturtean gure Proiektua, *Bulkada eta suhar berrituz* 1. dekretuaren argira irakurriko dugu berriro. Gure misioan sakonduko dugu, Aita-santuak igorritako mezuaren bidez, *"elkar ulertzeko eta elkarrizketarako zubi izateko zeregina eman digu, Lagundiaren ohiturarik onenaren arabera, beronen apostolutzaren aniztasunean"* (35KO, 1. D, 6. zenb.).

Proiektu berriaren ekarpen garrantzitsuetako bat, ondorengo 4 urteetan garatu nahi ditugun sektorearteko proiektuak dira, gure Eliza misioa ikusarazten duten zehaztaperen gisa. 4 proiektu horiek dira: pertsonen lagun egiteko plana, misioan; ebaluazio apostolikoa; Probintzia mailako sarea migrazioaren gaiaren inguruan; eta Jesusen esperientziatik bizitzeko prestakuntza-saioa (gazte helduentzat). Baliabideak mugatuak direnez, aurrean, *Probintzia mailako sarea immigrazioaren inguruan* ekimenari helduko diogu, sakontasun handiagoz. Gainerakoak, hurrengo urteetan lana hasteko erantzatuko dira.

2010eko Subjektu Apostolikoaren topaketan, gure misioaren elizatasunari buruz gogoeta egin nahi dugu, nola bizipen eta teoria mailatik, hala bere proiektu zehatzen errealitateak hurbilduz. Aurreko ekitaldietan bezala, topaketaren dinamikan lagunduko duen alde aurreko prestaketa izango dugu, komunitate mailako bi batzarretan.

Topaketa apirilaren 16an hasiko da, 13:00etan, eta apirilaren 17an, larunbata, amaituko da bazkariarekin. Loiolako Gogarte Etxean (Azpeitia) ospatuko da. Aurreikusitako lan-plana honakoa da:

Ostirala 16, arratsalde: **Gure misioaren zehazte bat**. Gure misioa Jesusen Lagundiaren eta Elizaren misioa da. Jasotzen dugun agindutik abiatuz, geure Proiektuetan zehazten saiatzen gara (Probintzia, sektoreak, obrak eta komunitateak). Lan egingo dugu *Probintzia mailako sarea immigrazioaren inguruan* ekimenean, komunitateek eta obrek egindako ekarpenetatik abiatuz. Garapen honen zati gisa, *lan-tarteak tokiko eremuan arabera* partekatuko ditugu, obrak kokatuta dauden inguruaren arabera proposamenak eragiteko. Arratsaldea eukaristia batez amaituko dugu.

Larunbata 17, goizez: **XXI. menderako erakunde konfesionalak**. Obren konfesionaltasunera hurbilduko gara, otoitzaren bidez. D. Joan Maria Uriarte gonbidatu dugu, gure gogoeta egiterakoan argi-bideak eman diezazkigun. Otoitza eta lana partekatuko ditugu taldean, gure misioa Jesusena eta bere Elizarena den kontzientzian sakontzen lagun diezagun.

Topaketa lanaren ondorioek lagunduko digute *Probintzia mailako sarea immigrazioaren inguruan* ekimena zehazten, eta konfesionaltasunean sakontzen jarraitzeko bideak erakutsiko dizkigu.

## KOADRO SINOPTIKOA

LOIOLAKO PROBINTZIA							
2009-10 IKASTURTEA							
		Lehen hiruhilekoa		Bigarren hiruhilekoa		Hirugarren hiruhilekoa	
ZUZENDARIEN ETA NAGUSIEN BATZARRA	<b>09/10/02</b> - LOI. Proiektu Berria - 2009/10 ikasturteko plana		<b>09/11/20</b> - ESP. Proiektua (Misioa, ikuspegia, aukerak)		<b>10/01/22</b> -Gaia: LOIO. Proiektuaren proiektu zehatzen urteko planaren jarraipena - ESP. Probintzien bateratze prozesua		<b>10/05/14</b> - Ezaugarrien ebaluazioaren aurkezpena <b>(2010 abe.)</b> -Urteko planaren jarraipena
NAGUSIEN BATZARRA			<b>10/01/23</b> -Gaia LOIO. Proiektuaren proiektu zehatzen urteko planaren jarraipena, SJen inplikazioaren ikuspegitik -Komunitate-proiektuen berrikuspena		PROBINTZIAKO SUBJEKTU APOSTOLIKOA		<b>10/05/15</b> -Urteko planaren jarraipena
SJ KOMUNITATEAK	LOI. Proiektu Berria gizarterat. batzarra	PSA 1. batzarra Elizatasuna sj (Elizatasun batzordea materiala)	Batzarra ESP. proiektuari nola erantzun  <b>(11/20tik 12/10ra)</b>	Batzarra apaizgintzaz SJ  <b>(10/01/22tik, 10/02/10ra)</b>		Lehen zatia: LOI Proiektuaren proiektu zehatzen bati buruz Tokiko Komunitate Apostolikoaren ikuspegiz?)  Bigarren zatia: jesuita-komunitateen konfesionaltasunaz	ESP Proiektua gizarteratu (Misioa, ikuspegia, aukerak) LOI Proiektua gizarteratu (Misioa, ikuspegia, aukerak)
KOMUNITATE APOSTOLIKOAK OBRAK	PSA 1. batzarra Elizatasuna		PSA 2. batzarra Gaia: LOI Proiektuaren proiektu zehatzetako bat				
OBRAK	LOI. Proiektu Berria gizarteratu	2009-10 ikasturteko Plana gizarteratu				Proiektuak gizarteratu	
PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA	<b>09/10/02</b> (sj eta laikoak) Diego Molina SJ "Elizarekin sentitu 35KO ondoren"		<b>01/22</b> (sj) NN "Apaizgintza"	<b>12/03</b> (sj y laicas/os) "Espiritualtasuna obretan" (Espiritualtasun batzordea)			